

ZINE FORUMA – V.O.S

ITSASARGIA

(Robert Eggers)

Maiatzak 26, osteguna, 20:30

110 min

1890eko hamarkadako Ingalaterra Berriko uharte urrun eta misteriotsua. Thomas Wake (Willem Dafoe) farozain beteranoak eta Ephraim Winslow (Robert Pattinson) laguntzaile gazteak elkarrekin bizi beharko dute lau astez. Itsasargia egoera onean mantentzea izango dute helburu, lehorrera itzultzeko aukera emango dien txanda iritsi arte. Baina gauzak korapilatu egingo dira bien arteko botere-hierarkien ondorioz gatazkak sortzen direnean.

Film honen interpretazio desberdinak egin daitezke. Begien bistakoa dena alde batera utzita, gizakiak kaoserako joera du, halabeharrez. Filma maskulinitatearen eta indarkeriaren irudikapen bat baino ez da, eta maskulinitatea hertsatzeak eta zuhurtziaren eta sozialki errespetagarritzat jotzen denaren mugetan gordetzeak zer eragin dezakeen irudikatzen du.

Zer gertatzen da gizabanako bat taldetik kanpo geratzen denean? Zer gertatzen da bakardaderik hertsienean iraun behar duenean eta denboraren eta bere buruaren nozioa galtzen duenean? Elementu fantastikoa argiaren eta sirenaren irudiekin sortzen da. Irudi horiek emakumeen sexualitate mehatxagarria irudikatzen dute, marinelenzako ameskeria hori eta plazeraren sinbolo desiratua: nahi bezainbat beldurtzen den edertasuna.

Filma oso ausarta da hainbat arrazoiengatik: lehenengoa da ia osorik bi aktorek soilik eusten dutela filma, eta interpretazio barbaroak egiten dituztela, bai hitz egiten dutenean, bai isiltzen direnean. Willem Dafoe eta Robert Pattinson casting-eko aukera gaindiezinak dira. Irudiaren formatua aukeratzeak ere zailtasun erantsi batzuk dakartza, are gehiago bertan kokatu beharreko faroa bezalako elementu bat dugunean: ia karratua den pantaila bat, zuri-beltz gordin bat duena, irudiaren garbitasuna eta zarata bilatzen ez dituen, eta soinu-banda bat gehitzen zaiona, zeinari burrunba nonahikoa den, etengabe mehatxatzen duen arrisku ezkutuko bat bezala.

Argazkigintza oso kontrastatua da, eta aktoreen zuzendaritzak ere liskar hori bilatzen du, hasieran dialektikoa mentorearen eta ikaslearen artean eta, pixkanaka, zaharraren eta gaztearen, itxuraz zoroaren eta itxuraz zentzudunaren artean.

Ez da beldurrezko pelikula hutsa, baina beldurgarria da kaio traizionatzailearen fario txarra azaltzen denetik. Hortik aurrera, lurrera eramaten dituen elementu folklorikoak xurgatzen ditu, eta ezinezkoa da pelikulatik ateratzea: harrapatu eta horripilatu egiten zaitu, baina, aldi berean, hainbesteraino hipnotizatzen zaitu, non amaieraraino iritsi behar duzun.

FIPRESCI Saria (Errealizatzaileen Hamabostaldia) -Cannes 2019

Film honen aukeraketa eta laburpenaren testua, Tolosako Zine Klubak eginak dira.

www.tolosa.eus



ZINE FORUMA – V.O.S

EL FARO (Robert Eggers)

26 de mayo, jueves, 20:30

110 min

Una remota y misteriosa isla de Nueva Inglaterra en la década de 1890. El veterano farero Thomas Wake (Willem Dafoe) y su joven ayudante Ephraim Winslow (Robert Pattinson) deberán convivir durante cuatro semanas. Su objetivo será mantener el faro en buenas condiciones hasta que llegue el relevo que les permita volver a tierra. Pero las cosas se complicarán cuando surjan conflictos por jerarquías de poder entre ambos.

Se pueden hacer distintas interpretaciones de esta película. Más allá de lo obvio, está la de que el ser humano tiende al caos de forma indefectible. La película no es ni más ni menos que una representación de la masculinidad y la violencia que puede llegar a desencadenar aprisionarla y contenerla en los límites de la cordura y lo socialmente concebido como respetable.

¿Qué pasa cuando un individuo queda desgajado del grupo? ¿Qué sucede cuando está obligado a mantenerse en la más estricta soledad y pierde la noción del tiempo y de sí mismo? El elemento fantástico surge con las figuras de la luz y la sirena, que vienen a representar la amenazante sexualidad femenina, esa quimera para los marineros y ansiado símbolo del placer: la belleza a la que se teme tanto como se desea.

La película es muy valiente por numerosas razones: la primera de ellas es que la sostienen sobre sus hombros casi en su totalidad dos actores que realizan interpretaciones bárbaras tanto cuando hablan como cuando callan. Willem Dafoe y Robert Pattinson son dos elecciones de casting insuperables. La elección del formato de la imagen también comporta una serie de dificultades añadidas, máxime cuando se tiene un elemento como un faro que encuadrar en ella: una pantalla casi cuadrada y con un crudísimo blanco y negro, en el que no se busca tanto la nitidez de la imagen como el ruido, al que se suma una banda sonora en la que el zumbido es omnipresente, como un latente peligro que acecha de forma constante.

La fotografía es muy contrastada y la dirección de actores busca también ese enfrentamiento, dialéctico al principio entre mentor y aprendiz y, poco a poco, entre el viejo y el joven, el aparentemente loco y el aparentemente cuerdo.

No es una película de terror en estado puro, pero resulta terrorífica ya desde que tenemos el mal faro de la gaviota traicionera. A partir de ahí, va absorbiendo elementos folklóricos que lleva a lo terrenal y ya es imposible salir de la película: te atrapa y horripila, pero a la vez te tiene hipnotizado hasta tal punto que necesitas llegar hasta el final.

Premio FIPRESCI (Quincena de Realizadores)-Cannes 2019

Cine Club Tolosa ha seleccionado esta película y ha redactado este texto.

